

# Heraldika



**ATUCHA: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik**


Madrilgo Archivo Histórico Nacional-ean 1682ko agiri bat aurkitu genuen, Dimako Pedro López de Olabbarri Gojénola Bernaola Atucha bizkaitarrak Calatravako Zaldun-ordenean har dezaten eskatzen zueneko<sup>1</sup>.

Pedro López de Olabbarri aipatu Ordenean sar zitekeenetz erabakiteko, eskatzaile guztiekin gertatzen zen bezala, informazio bila etorri ziren datu biltzaileak. Diman, *Olabbarri, Gojénola eta Bernaola* oinetxeak ikustatu zituzten; Lemoan, *Atucha* oinetxea.

Hona, aipatu agirian jasota, *Atucha* oinetxea eta armariaren deskribapena:

En la dha Anteyglesia de Lemoa desta Merindad de Vedia, dho dia veinte y nueue de mayo de dho año para lo contenido en el auto de arriba fuimos al sitio donde esta la Casa de el apellido de Atucha, que esta cerca de un rio y en medio de una robleda, sola, aunque aya otra cerca de ella con mas de dos tiros de mosquete, la qual es una Casa quadrada alta y de cal y canto hasta la mitad, y lo restante hasta el techo de tabla, que asi en su fabrica, material y ventanaje como en el sitio denota mucha antigüedad y en la fachada que mira al lado de el Rio, al occidente tiene un escudo de armas esculpidas en una piedra, el qual se compone de un quartel solo y en el un hombre pescando en un rio con bara asido al ançuelo un pez y un alfanxe tendido a los pies y dos caueças de hombre junto a el, y en el remate su çelada y plumaxe, las quales hicimos dibujar para lleuar con esta información.

Roberto Bartolomé bermarraztu ditu gure lanerako<sup>2</sup>:



<sup>1</sup> *Archivo Histórico Nacional. Órdenes Militares. Caballeros. Calatrava, 1443.*

<sup>2</sup> Quiero agradecer a Roberto Bartolomé Pesquera su disposición a dibujar los diversos escudos de armas de los Atutxa. Todos los que aparecen en este trabajo, excepto el que se dibujó en 1682, son suyos. Y, por supuesto, agradecer al vasco-canario Aitor Eneko de Elejabeitia, en primer lugar, su amistad; además, todas las gestiones que ha hecho y hace en relación con los Atutxa. Eskerrik asko biori.




## ATUCHA: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Hau dugu, bada, Atutxa armariaren lehen eta zaharren deskripzioa, *Atucha* oinetxean bertan egina 1682ko urtean.

*Sareetan sarera* ere jo dugu, noski. Eta han Atutxatarren armariaren bertsio desberdinak aurkitu ditugu<sup>3</sup>:

a) [tatucha.wix.com](http://tatucha.wix.com) web orrian, oinetxea eta armaria deskribatzen dira. Hona esaten zaiguna:




“En el caserío de Lemorrieta (Lemona) y en el barrio de Oba (Dima), y de aquí en el caserío Oianekoa de Bernagoitia (Amorebieta).

Partido en pal: En el 1º, en azul, un hombre a la orilla de un río, pescando con vara, sedal y anzuelo, sacando un pez; y en el 2º, en gules, una espada de plata, con la punta ensangrentada, entre dos cabezas de moro de sable, degolladas y manando sangre.

Otros Atucha usaron también este escudo: Partido en pal: en el 1º, en oro, con dos lobos de sable, andantes y puestos en palo; y en el 2º, en plata, con tres fajas de gules. Bordura general de gules, con ocho aspás (sotueres) de oro.”

**ATUTXA**



Diego de Soto y Aguilar<sup>4</sup> delakoak, Lemoarako esaten duena:

“Escudo cuartelado: En el 1º, en oro, tres fajas de sable; en el 2º, en sinople, un castillo de plata, puesta sobre ondas de azul y plata; en el 3º, en plata, dos lobos andantes de sable cebados; y en el 4º, en oro, tres panelas de sinople, bien ordenadas.

**ATUTXA**

<sup>3</sup> “Heráldica Vasca: Atutxa-Atucha”, [http://tatucha.wix.com/the-tatucha-family#!\\_page-4](http://tatucha.wix.com/the-tatucha-family#!_page-4)

<sup>4</sup> **Diego de Soto y Aguilar**, era criado de Su Majestad Felipe IV y furrier y aponsentador de las tres guardias españolas, como acostumbra a indicar en algunas de sus obras. Vivió en el siglo XVII y destacó, para la posteridad, por su amplia obra histórica y genealogista, especialmente con carácter de cronista y recopilador de obras coetaneas o anteriores a él.


[https://es.wikipedia.org/wiki/Diego\\_de\\_Soto\\_y\\_Aguilar](https://es.wikipedia.org/wiki/Diego_de_Soto_y_Aguilar)

Bordura general de gules con ocho flores de lis de oro<sup>5</sup>.”

b) [heraldicadeapellidos.com](http://heraldicadeapellidos.com) web orriatik jasoa:

“ATUCHA-CANDELATEGUI:

Una casa del apellido Atucha hubo en la anteiglesia de Lemona, del partido judicial de Durango (Vizcaya). Otra casa radicó en el Caserío de Oyanecoa, inmediato a la aldea de Bernagoitia, del Ayuntamiento de Amorebieta, en el mismo partido judicial de Durango. En dicho caserío se conserva un árbol genealógico, en el que se hace constar que esta familia procede del barrio de Oba, u Obas, del Ayuntamiento de Dima, también del partido judicial de Durango. De esta familia fue doña Micaela de Atucha y Candategui, que vivía en 1873, año en que se quemó el archivo parroquial de Dima.



Armas de ATUCHA-CANDELATEGUI

Partido: 1º, de azul, con un pescador de caña, sobre el ribazo de un río, pescando, y 2º de gules, con dos calaveras de sable, puestas en palo, y entre las dos una daga de plata con la punta ensangrentada y puesta en sentido horizontal.

Así consta al pie del mencionado árbol genealógico, que fue dibujado por don Pedro de Atucha, presbítero en Roma.

El actual jefe de la familia es don José Atucha, que vive en Dima. Don Vicente de Atucha habita en el caserío de Oyanecoa.

Otros Atucha usaron también este escudo: Partido, 1º, de oro, con dos lobos de sable, andantes y puestos en palo, y 2º, de plata, con tres fajas de gules. Bordura general de este color, con ocho sotueres de oro.”

c) Real Academia de la Historia-n aurkitutako agiri batean esaten zaiguna<sup>6</sup>:

<sup>5</sup> “El nobiliario vizcaíno de Soto y Aguilar. Por Diego de Soto y Aguilar. Introducción y notas por Vicente de Cadenas y Vicent” *In Hidalguía. La revista de genealogía, nobleza y armas*. Año III. Mayo-junio 1955. Nº 10. Madrid. Pag. 411.


<sup>6</sup> Sarrabio, E – Garrido, M. *Catálogo de la Colección Pellicer antes denominado Grandezas de España*. “Noticia de la Familia Atucha, cuyo solar está en Vizcaya, con descripción de sus escudos de armas y de sus variantes.” T. 3, fº 36v. Real Academia de la Historia.



**ATUTXA**

“Partido en pal: en el 1º, en oro, con dos lobos de sable, andantes y puestos en palo; y en el 2º, en plata, con tres fajas de gules. Bordura general de gules, con ocho aspas (sotueres) de oro”<sup>7</sup>.

d) “En campo de oro, cinco calderas de sable, puestas en sotuer”:



**ATUTXA**

Dakuskegunez, bada, lau Atutxatarren harmarri-bertsio desberdinen aurrean aurkitzen gara. Bertsio guztietan, haatik, akatsen bat edo beste.

Horrela, esaterako, [tatutxa.wix.com](http://tatutxa.wix.com) web orrian esaten zaigu: “En el caserío de Lemorrieta (Lemona)...”. Baserri-etxeak, noski, egun lau etxebizitzatan banatua, *Atutxa* izena dauka, Lemourieta auzunean kokatua (*Lemona + Uria + eta*); hemen ere, hainbat eta hainbat eskuizkributan bezalaxe, *u/r*, nahasketa dugu.

<sup>7</sup> Honela dio Manuel Monrealek bere “De sermone heráldico...”-n (“De sermone heráldico: precisiones sobre la lengua del blasón”. Manuel Monreal Casamayor. *Emblemata*, 10. 2004. Pags. 417-437):

En la Heráldica castellana, las aspas o sotueres, de oro, fueron llevados a sus escudos en una bordura de gules, incluso en orla, concedidas por Fernando III El Santo, por los Caballeros asistentes a la toma de Baeza, el día de San Andrés del año 1227, cuyo es el atributo por su martirio en Patrás (Grecia) en una cruz *decussata*, conocida desde entonces como Cruz de San Andrés.

Martín de Riquer advierte al respecto que anteriormente a este uso o moda ya se conocían las aspas en bordura en un escudo bloqueado del Conde Don Nuño, muerto en 1209, y situado en su sepulcro del Monasterio de las Huelgas de Burgos; con ello da a entender que puede no ser verosímil el motivo de la adopción de las aspas en bordura como consecuencia de la toma de Baeza; no parece tener mucho peso esta sospecha, con la sola razón aducida, pues Argote de Molina (1866) afirma, así mismo, que la divisa del aspa es más antigua que la conquista de Baeza ya que aparece en ejecutorias del Reino de León, ganadas también «el día de este Santo en una victoria que hubo de los moros el Rey de León, junto al Palo de Behovia en la cumbre del Puerto de Arva». (*Nobleza de Andalucía* Linaje San Andrés).

En resumen, las borduras de gules con aspas de oro van ligadas a hechos de armas contra el musulmán, ganados el día de San Andrés, y así consideraremos su origen.

Genealogistek egin duten beste akats bat da adieraztea armarria *Oianekoa* baserri-etxera pasatu zela, Bernagoitian. Ez dugu *Oianekoa* baserririk; bai *Goienengoa*, egun ere atutxatarrez betea...

Lemorrieta/Lemourieta (*u/r* nahasketa) gisako bigarren akats bat: [heraldicadeapellidos.com](http://heraldicadeapellidos.com) web orrian Atucha-Candelategui abizen elkartuaren berri ematen zaigu.

Abizena, noski, Atucha dugu; eta *Candelategui* Atucha horiek kokatu ziren baserria dugu. Etxea, baina, ez da *Candelategui*, *Caudalategui* baizik, oraingoan ere *u/n* nahasiz.

### ***Caudalategui***

*Caudalategui* Dimako Obagoiendia auzunean kokatutako baserri-etxea dugu, *Zabala*, *Iturriotz*, *Amorroritu* eta *Armendia* (egun desagertua) baserri-etxez inguratua.



Oinetxe honen historian berrehun eta hirurogei bat urte atzera eginez, 1742an Prudencio de Echebarria *Caudalategui* eta Catalina de Echebarria Linduz ditugu bertan ugazaba-ugazabandere. Arazo larri, oso larri baten aurrean aurkitzen dira Prudencio eta Catalina: ez dute oinordekorik izan, adinetan sartuak dira eta *Caudalategui* enborreko ahaideren bati utzi nahi-behar diote.

Catalinak argi du bere oinordeko Polonia de Echebarria Linduz loba izango dela, *Linduz* oinetxekoa. Prudenciok bereen artean bilatu eta José de Atucha Erezcano aurkituko du, hau ere loba, *Atucha de Arriba* edo *Atutxagoikoa* oinetxeko bigarrena, Bikarregi eta Oba bitartean kokatua.

Ez da, haatik, hain erraza suertatuko bi lobok ezkondu nahi hura. José de Atuchak argi du, bigarren gisa, *Atutxagoikoatik* irten behar duela, eta garai hauetan (1742) Zeanuriko *Iturrate* oinetxeko oinordekoari hitza emana dio, ezkon-hitza. Catalina de Echebarria, ordea, emakume saiatua da, irmoa. Ekin eta ekin, José de Atucha konbentzitu egingo du bere loba Polonia de Echebarriarekin ezkondu eta *Caudalategui* har dezaten (*BFAAH-JCR0520/019*).

Itxura guztien arabera, konbentzitu dute José de Atucha... baina kontuan izan ez duten bat azaltzen da ekuazioan: Antonio de Echebarria Linduz, Poloniaren aita. Antoniok dio ez duela bat ere gustko José eta bere alaba ez dela harekin ezkonduko.

Gainontzeko enborreko ahaide bat bilatzen hasi dira eta Tomásekin adostuko dute ezkontza. Tomás ere Prudencioaren loba dugu, Manuel de Uriarte Elexpe eta María de Amorrorturen seme. Gurasoek Obagoiendian bertan dituzten bi *Amorroritu* etxeak ekarriko ditu ezkontzara. 1742ko ekainak 14an Juan de Orue eskribauarenean sinatutako ezkontza-kapitulazioetako nahitaezko balditza bat da Tomás eta Polonia urte hartako abuztuak 31rako ezkonduak behar dutela izan.



Zorioneko hogeita hamaika helduta, Tomásék ez du ezkontza gauzatzeko inolako asmorik azaltzen. Prudencio eta Catalinak auzia jarriko diete Tomás eta gurasoei (*BFAAH-JCR0193/017*) eta instantzia desberdinetan arrazoia jasoko dute; ezkontza, bada, bertan behera gelditzen da.

José de Atucha Erezcano, bitartean, ez da geldirik izan: ezkontzako berba bete ez dutelako, urrezko 2.000 errealeko demanda jartzen die Prudencio eta Catalinari.

Denboran urtebeteko jauzia eginez, 1743ko abenduan gaude. Kontua da urte horretako azaroak 30ean, San Andres egunez, *Caudalateguin* lapurrak izan direla. Eta lapurretan eragin diren kalteen ondorioz jarri den auzian José de Atucha eta Polonia de Echebarria Linduz azaltzen zaizkigu, *Caudalateguiko* ugazaba-ugazabandre gisa (*BFAAH\_JCR0830/010*). Itxura guztien arabera, bada, pisu handiagoa izan zuen José de Atuchak aita-amaginarrebei jarri zien 2.000 errealeko auziak Polonia de Echebarria Linduzen aitaren gurariak baino. Derragun, bide batez, dena etxean gera dadin, erasotzaile-lapurretako bat aurreko urtean Poloniarekin ezkontzeari uko egin dion Tomás de Uriarte Amorrortu dugula.

Kontakizunak argi uzten diguna da lehen atutxatarra 1742ko ondarretan edo hurrengo urteko hasieran heltzen dela *Caudalateguira*, Oban, ordurako atutxatarren Bizkaiko lurraldeetako ibilerak oso aurreratuak direla.

Egia da, haatik, behin *Caudalateguira* helduta, oraintsura arte izan ditugula Atutxak bertan.<sup>8</sup>

### Goienengoa

Izan zen, egon dago, Zornotzan, Bernagoitian, *Bernagoitia* izeneko dorre-etxea, XVI mendearen hasieran eraikia. *Goienengoa* izenez ere ezagutua, derragun berriro ere *Oyanecoa* hura genealogisten inbenzio hutsa dela.

Bazituen oinetxeak aldameneko bi baserri-etxe ere, bietan barriena 1832an eraikia, etxearen zutabeetako batean ikusten dena kontuan hartuta.

Isaak Atutxaren [http://www.atutxa.eus/gallery/04\\_atutxa\\_kaudalategi.pdf](http://www.atutxa.eus/gallery/04_atutxa_kaudalategi.pdf) lanean ikus genezakeenez, Atutxa-Kaudalategitarren laugarren belaunaldian, Prudencio de Atucha-Caudalategui Arana bat dugu, Lorenza de Zubero Amorrorturekin ezkonduko dena.

Senar-emazteek bost seme-alaba izango dituzte: zaharrena, 1842an jaiotako eta *Caudalategui* jarauntsiko duena, Prudencio Atucha-Caudalategui. Gero, gainontzeko lau seme-alaba gehiago, Lorenzo Trifón, José, María Martina eta Pedro, Erroman presbitero.

---

<sup>88</sup> Kaudalategi oinetxearen nondik norako historikorako jo beza irakurleak [www.atutxa.eus](http://www.atutxa.eus) webgunera, [http://www.atutxa.eus/gallery/03\\_etxebarria\\_kaudalategi.pdf](http://www.atutxa.eus/gallery/03_etxebarria_kaudalategi.pdf) lanera bereziki.



Bigarren semea Lorenzo Trifón de Atucha-Caudalategui Zubero dugu, Diman jaioa 1843ko uztailak 2an.

Lorenzo Trifón hau izango da, hain zuzen ere, Bernagoitira ezkonduko dena, *Goienengoa* oinetxera. Han ezkonduko da bertako oinordeko den María Antonia de Echebarria Ercilurrutirekin, 1879ko abuztuak lauan (AA\_EE\_ezkontzak\_53317):



En cuatro de agosto de mil ochocientos setenta y nueve, en la Yglesia Parroquial de San Miguel Arcangel de Bernagoitia, Provincia de Vizcaya, obispado de Vitoria, yo don Juan Domingo de Zugazabeitia, cura párroco de ella, desposé casé y velé, por palabra de presente *in facie Ecclesie*, a **Lorenzo de Atucha**, soltero, edad de treinta y cuatro años, natural y feligrés de Dima, hijo legítimo de Prudencio de Atucha y de Lorenza de Zubero, naturales y vecinos de Dima, con Maria Antonia de Echebarria, soltera, edad treinta años, natural de Larrabezua y feligrés de esta, hija legítima de Pedro de Echebarria natural de Larrabezua y Maria Antonia de Ercilurruti, natural de esta y vecinos de Larrabezua, todos labradores; y habiendo precedido todos los requisitos necesarios para la validez y legitimidad de este Sacramento, siendo testigos Sebastian de Gallastegui, natural de Axpe, y Eugenio de Alcorta, natural y vecino de esta, y por en verdad lo firmo la presente partida en dho día mes y año = Don Juan Domingo de Zugazabeitia.

Lehen kontu garrantzitsua, bada: Atucha abizena 1879an helduko da Bernagoitiara.

[heraldicadeapellidos.com](http://heraldicadeapellidos.com) orrian Micaela Atucha-Caudalategui familia honetakoa zela jasotzen da, 1873an han bizi zela. Okerreko, gezurrezko kontua, haatik.

Lorenzo Trifón eta María Antonia *Goienengoako* aldameneko etxeetako batera ezkonduko dira, 1832an eraki zenera. Ezkontza honen emari dira Pedro María, María Josefa, Antonio, Lorenza eta Vicente de Atucha Echebarria.

Alaba biak erlijiosa izango dira; egungo oinordekoek ez dute ziurtasunik Antonio honetaz (litekeena da, bada, jaio eta denbora gutxira hil izana). Pedro izan zen oinordekoa, eta Zornotzan bertan, Eubara ezkondu zen, *Austolarra* oinetxera.

Vicente de Atucha Echebarriak, seme-alabetan gazteena, *Goienengoa* oinetxeko aldameneko baserri-etxea, 1832an eraikia, erosiko dio sendiari.



Dimara, Obako *Caudalategui* oinetxera bueltatzeko ordua da. Oinordekoa, dakigunez, Prudencio de Atucha-Caudalategui Zubero dugu, Lorenzo Trifónen anaia zaharrena.

Prudencio hau Arantzazuko neskatxa batekin ezkonduko da: Mariana Larrea, *Bizkarra* oinetxekoa. Ezkontza 1886ko ekainak 5an ospatu zen, Arantzazuko San Pedro elizan. Senar-emazte hauen oinordeko gazteena Micaela de Atucha-Caudalategui Larrea izango da, 1898ko martxoak 14an jaioa.

Micaela, bada, Lorenzo Trifón de Atucha-Caudalateguiaren loba eta Vicente de Atucha Echebarriaren lehengusina propio dugu.

Micaela, 1911 aldera, 13 urteko neskatila dugula, *Goienengoara* bidaltzen dute, neskame, osaba-izeko eta lehengu-lehengusinenera... Ez da berriz bueltatuko *Caudalateguira*.

Oba-Bernagoitiatarrenen arteko harremana, haatik, ezin hobea da. 21 urtetan zehar, Arratiako senideen bisitak jasoko ditu Micalaek, udara partera batez ere. Tomas anaia eta honen emazte Encarna Albizua han izaten ziren denboraldietan. Baita ahizpa Lorenza ere.

1931 urterako, hilak dira Lorenzo Trifón eta María Antonia. Seme Vicente bakarrik gelditu da *Goienengoan*, Micaela lehengusina-neskamearekin batera. Erromara dispentsa eskatu eta elkarrekin ezkonduko dira.



José Antonio de Atucha Atucha izango da seme bakarra. Azken honen alarguna eta seme-alabak dira egun *Goienengo* baserri-etxean bizi direnak.

Gogora dezagun, labur bada ere, Prudencio eta Lorenzo Trifónen anaia gazteena Pedro izan zela, Erroman presbitero izan genuena, Micaelaren osaba, bada.

Pedro izan zen hainbat kronikatan azaltzen den Atucha-Caudalateguitarren genealogia zuhaitza marraztu zuena, Bernagoitian ziurrenik.

Aldama pintoreak 1981ean egin zuen zuhaitz honen kopia izan da, urteetan zehar, Obako *Caudalateguin* jangelako buru...

### Genealogia labur bat

#### **1.-José de Atucha Erezcano & Polonia de Echebarria Linduz**

(ca1742-1743)

##### **1.1.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Echebarria Linduz** (1745-11-24)

1.2.-Josefa de Atucha-Caudalategui Echebarria Lidunz (1746)

& José Antonio de Uriarte-Amorrortu Betolaza (1751)

Seme-alaba: José Antonio, Manuel, Juan José y Domingo

1.3.-Juan de Atucha-Caudalategui Echebarria Linduz

& María Bautista de Orue

1.4.-Antonia de Atucha-Caudalategui Echebarria Linduz

& Tomás (???) de Echebarria Arratiagoien

1.5.-Águeda María de Atucha-Caudalategui Echebarria Linduz

& Francisco de Ugalde Iza

Francisco izeneko semea (1777-06-20, Dima)

#### **2.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Echebarria Linduz**

& Águeda de Uriarte-Amorrortu Arana

(*Igorre, Andra Mari: 1773-08-10*)

##### **2.1.-Francisco de Atucha-Caudalategui Uriarte-Amorrortu** (1776)

2.2.-José de Atucha-Caudalategui Uriarte-Amorrortu (1782)

& María Jesús de Bernaola Ausmendi (1800)

Seme-alaba: Ramona, Nicolás (1823) eta Pedro

2.3.-María de Atucha-Caudalategui Uriarte-Amorrortu

& Francisco Antonio de Zabala

Seme-alaba: María, José Antonio, Faustino, Eusebia, Agustín eta José

#### **3.-Francisco A. de Atucha-Caudalategui Uriarte-Amorrortu** (17-11-1776)

& M<sup>a</sup> Juana Bautista de Arana Escubi (Arantzazu, 1788-10-24) (†1832)

(*Arantzazu, San Pedro: 1809-09-18*)

##### **3.1.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Arana** (1812)



3.2.-María de Atucha-Caudalategui Arana (1816)

& Francisco de Ortuondo Atucha

Seme-alaba: María Josefa, María Bautista, José, María, Tomasa eta Pedro

3.3.-Pedro de Atucha-Caudalategui Arana (1818)

& Rosa de Baroya

Seme: Francisco eta Domingo

3.4.-Francisco Antonio de Atucha-Caudalategui Arana (1820-05-18) (†1889-12-06, Igorre)

& Benita de Lizardi Urkiza (1829-03-21, Igorre) (†1893-03-25, Igorre)

(*Igorre, Andra Mari: 1852-04-19*)

Seme-alaba: María, Manuela, María Josefa, Gregoria Teresa, María Antonia, Teresa

Brígida, Francisco Cándido, Vicenta eta Juana Trinidad.

3.5.-Juan de Atucha-Caudalategui Arana (1823)

3.6.-Eusebia de Atucha-Caudalategui Arana

3.7.-Ramón de Atucha-Caudalategui Arana (1830-03-24, Dima)

& Vicenta de Sagarraga Mendiara (1835-01-22, Mañaria)

(*Mañaria, Andra Mari: 1856-07-28*)

Seme-alaba: Saturnina, Aureliana, José Ramón, Vicenta eta Jesusa

3.8.-José de Atucha-Caudalategui Arana (1832-10-05)

#### **4.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Arana**

& Lorenza de Zubero Amorrortu (†1885-02-02)

(*ca. 1841*)

**4.1.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Zubero** (1842) (†1915-08-22)

4.2.-**Lorenzo Trifón** de Atucha-Caudalategui Zubero (1843-07-02, Dima)

& María Antonia de Echebarria Ercilurruti (1849-08-05, Larrabetzu)

(*Bernagoitia, San Miguel: 1879-08-04*)

Seme-alaba: Pedro María, María Josefa, Antonio, Lorenza eta **Vicente**

4.3.-José de Atucha-Caudalategui Zubero

4.4.-M<sup>a</sup> Martina de Atucha-Caudalategui Zubero (†1886-01-01)

4.5.-Pedro de Atucha-Caudalategui Zubero (1849-10-19, Dima), *presbitero Erroman*

### 5.-Prudencio de Atucha-Caudalategui Zubero

& Marina de Larrea Careaga (1858)

(*Arantzazu, San Pedro: 1886-06-05*)

5.1.-Victoriano de Atucha-Caudalategui Larrea (1887-03-23, Dima)

5.2.-José de Atucha-Caudalategui Larrea (1888-10-16)

5.3.-Lorenza de Atucha-Caudalategui Larrea (1891-03-22)

5.4.-María de Atucha-Caudalategui Larrea (1893-08-05) (†1984-02-19)

& Tomás de Azurmendi Echebarria (1901) (†1971-05-13)

Seme: Benito (1933-04-04)

5.5.-Tomás de Atucha-Caudalategui Larrea (1896-01-15, Dima)

& Encarna de Albizua

5.6.-Micaela de Atucha-Caudalategui Larrea (1898-03-14) (†1989-10-02)

### 6.-José de Atucha-Caudalategui Larrea (1889) (†1966-09-26)

& Petra de Iza Bilbao (1898-05-18) (†1976-07-08)

(*Oba: 1920-09-02*)

José, Prudencio, Francisco, Prudencio, Prudencio eta José de Atucha-Caudalategui izan ziren, zein bere garaian, *Caudalategui* oinetxeko jaunak. Izan ere, hiru Prudencioetan azkenak *Caudalategui* etxearen ondoko egun *Kaudalategibekoa* izenez ezagututakoa berreraiki zuen 1880an. Eta azkenengo jaun-jabe izan zen Josék, Petrarekiko ezkontzarako, *Caudalategui* zahar hura eraitsi eta egun, Oban, zutik dirauen berria eraiki zuen...

